BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2326

EBAZPENA, martxoaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Dirubideen zuzendariarena, zeinen bidez Justizia eta Herri Administrazioko sailburua eskuordetzen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko administrazio-zentroetako posta-zerbitzuen kontrataziorako.

Eusko Jaurlaritzari posta zerbitzuak Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A.k eman dizkio, bion artean sinatutako lankidetza-hitzarmen baten bidez, 2010eko urtarrilaren 1ean izenpetua eta 2011. urterako luzatu zena. Hitzarmen horren bosgarren klausulari jarraiki, hiru hilabeteko iraupena duen luzapen automatikoaren ondorioz, gaur egun indarrean dago lankidetza-hitzarmena. Aipatutako epe horretan, aldi biek berariaz eta idatziz ezarri beharko dituzte baldintza aplikagarriak hurrengo aldirako.

Bestetik, 97/67/CE zuzentaraua aldatzen duen otsailaren 20ko 2008/6/CE zuzentarauak, posta zerbitzuen barne merkatua garatzeko arau komunez diharduena, eta haren transposizioa barne zuzenbidera, posta zerbitzu unibertsalaren abenduaren 30eko 43/2010 Legearen bitartez, erabiltzaileen eta posta merkatuaren eskubideez diharduena, posta zerbitzuen prestazioa liberalizatu du. Hala, eta kontratazio publikoaren printzipioen aplikazioaren arabera, ezin da lankidetza-hitzarmena berriro sinatu, eta lizitazio bat egiteko prozesuari ekin behar zaio, posta operatzaile guztiei irekia eta kontratazio publikoaren printzipioekin bat etorriz.

Hala ere, eta kontratazio espedientea izapidetu edo bideratzen den bitartean, administrazio publiko batean posta zerbitzua eteteak ekar ditzakeen ondorioez jabetuta, ezinbestekoa da egungo lankidetza-hitzarmena luzatzea, kontratu administratibo berriaren esleipena egin arte.

Beste alde batetik, une honetan, gure iritziz, Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren esku dauden kudeaketa zentralizatuko eraikinen posta zerbitzua batera edo modu zentralizatuan kontratatzeak lagundu egiten du zerbitzuen kudeaketa hobetzen eta gastu publikoa arrazionalizatzen. Ildo beretik, gauza bera esan dezakegu Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren gainerako sailen menpe dauden erakinen kasuan, OO.AA., zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak, esate baterako.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak, bere V. atalburuan eta Lehenengo Xedapen Gehigarrian dioena, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuak, bere 18.e) artikuluan dioena kontuan hartuta, Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren egitekoak izanik, erabilera orokorrerako diren eta kudeaketa zentralizatua duten eraikinetan ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio.

Era berean, abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 18.a) artikuluak zuzendaritza horri ematen dio eskumena, era zentralizatuan eskuratu behar diren ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzeari begirako proposamenak egin ditzan.

Goraxeago aipatutako 136/1996 Dekretuaren 19. artikuluaren arabera, kudeaketa zentralizatuaz besteko eraikinetan ere eskumena gauzatzeko baimena du Baliabide Orokorren Zuzendaritzak. Horien instrumentalizazioa hitzarmenen, administrazio alorreko klausula berezietako pleguetan

azaltzen diren berariazko prebisioen edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen bidez gauzatzen da.

Lehen aipatutako eremuan, era zentralizatuan posta zerbitzuak kontratatzeko bide edo formula egokia azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea) 13.1 artikuluan eskumenak eskuordetzan emateko aurreikusten dena da, eta honako hau xedatzen du:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoak ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira.»

Kontratazio gaietan, 472/2009 Dekretuaren 4.2.c) artikuluak Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari ematen dizkion eskumenak aintzat hartuta,

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuaren 9.n) artikuluak dioenez, Administrazio eta Dirubideen zuzendariak 1.000.000 eurora bitarteko espedienteetan Sailaren kontratazio-organo gisa jokatzeko ahalmena duela aintzakotzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren esku uztea honako zeregin hauetarako eskumena:

a) Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A.rekin sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatzeko terminoak negoziatzea, posta zerbitzuak emateko behar dena, harik eta horien kontratazio administratiboa konpondu edo bideratu arte.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko eraikinetarako posta zerbitzua kontratatzea (ebazpen honen eranskinean aipatuta datoz eraikin horiek).

Haren esku utzitako eskumena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusi eta kontratuari aplikagarriak diren honako gai hauek ere bideratzeko da:

– Kontratua prestatzea (II. liburukia).

– Kontratua esleitzea (III. liburukia, I. titulua, II. kapitulua).

– Administrazioaren eskuduntzak, aldaketa, iraungitzea, lagapena eta azpikontratazioa, izaera orokorrarekin IV. liburukiko I. titulua, I. kapituluan aurreikusten direnak, eta hornidura-kontratuetarako izaera partikularrekin IV. liburukiko II. titulua, IV. kapituluan aurreikusiak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburukia, I. titulua, I. kapitulua).

2.– Kontratazio organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta bereziki emandako zerbitzuak gauzatzeko oniritziari eta horiek ordaintzeko aginduari lotutako ahalmena edo eskumena, ordezkaritza eman zaion organoaren esku geratuko dira.

3.– Ordezkaritza emateko agiri hau sinatu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 26a.

Administrazio eta Dirubideen zuzendaria,
JUANA URRUTIA BILBAO.

ERANSKINA

Kodea	Ikastetxea	Helbidea	Udalerria
010012	IPI Ikasbidea Ikastola	Iturribero 3	Arrazua-Ubarrundia
010046	IES Aniturri	Galzar 4	Agurain
010138	IES Mendizabala	Portal de Lasarte z/g	Vitoria-Gasteiz
010140	IES Koldo Mitxelena	Agurain Taldea 2	Vitoria-Gasteiz
010316	CEIP Garazi	Santan Engrancia etorbidea	Legutio
010319	IES Zaraobe	Etxebarriaur 6-8	Amurrio
010338	CEIP Lamuza	Granjabide	Laudio
012004	CEP San Juan LHI	Aralar z/g (20260)	Alegia
012053	IES Uni Eibar-Ermua BHI	Otalora 29 (20600)	Eibar
012055	IES Ignacio Zuloaga BHI	Jardiñeta 3 (20600)	Eibar
012071	IES Talaia BHI	Aspune 2	Hondarribia
012108	IES Plaiaundi BHI	Plaiaundi z/g	Irun
012117	IES Olazabal BHI	San Martin 16	Legazpi
012132	IES Mutriku BHI	Magdalena auzoa 15	Mutriku
012153	CEP San Martin LHI	Errezil z/g	Errezil
012184	CEP Amara-Berri LHI	Ferrerias Pl.	Donostia-San Sebastián
012201	CEP Altza - S. J. C. LHI	Txapinenea 21-23	Donostia-San Sebastián
012224	IES Altza BHI	P.º Altza 43	Donostia-San Sebastián
012225	IES Bidebieta BHI	Serapio Mugica 31	Donostia-San Sebastián
012282	IES Oianguren BHI	Gernikako Arbola 1	Ordizia
012284	CEP Gain-Zuri LHI	Labeaga 18	Urretxu
012288	CEP Orokieta LHI	Araba 56	Zarautz
012292	IES Lizardi BHI	Araba 18	Zarautz
012298	IES Zumaia BHI	Aita Maria 45	Zumaia
012319	CEP Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe LHI	Estrada kalea 115	Azkoitia
012320	CEP Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai	Euskalherria 50	Azpeitia
012334	CEP Langile Ikastola LHI	Karobieta z/g	Hernani
012348	CEP Goizeko Izarra Ikastola LHI	Magdalena auzoa 14	Mutriku
012356	CEP Langaitz Ikastola LHI	San Markos errepidea z/g	Errenteria
012468	IEFPS Don Bosco GLHBI	San Markos errepidea z/g	Errenteria
012721	IES (ITS) Construccion Donostia-San Sebastián (ITB) BHI	Nao Etxeko kalea z/g	Donostia-San Sebastián
012740	IES Leizaran BHI	Plazaola 23	Andoain
012964	IES Langaitz BHI	San Markos errepidea z/g	Errenteria
012971	CEP Luzaro LHI	Itziar Bide 18	Deba
012972	CEP Zumaia LHI	Aita Mari auzoa	Zumaia
012976	CEP Talaia LHI	Baserritar etorbidea	Hondarribia
012980	IES Orixe BHI	Santa Luzi 16	Tolosa
012981	IES IPIntza BHI	Boni Laskurain	Bergara
012982	IES Xabier Zubiri-Manteo BHI	J.M.Barandiaran 12	Donostia-San Sebastián
012983	IES Lasarte-Usurbil BHI	Buenos Aldapa 1	Lasarte-Oria
012985	IES Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe BHI	Estrada Kalea 115	Azkoitia
013007	IES Urola Ik. Azkoitia-Azpeitia BHI	Perdillegi 3	Azpeitia

Kodea	Ikastetxea	Helbidea	Udalerria
013012	IES Hernani BHI	Santa Barbara z/g	Hernani
013015	IES R.M. Zuazola-Larraña BHI	San Lorenzo z/g	Oñati
013021	IEFPS Bidasoa GLHBI	Elizatxo etorbidea 10	Irun
013023	IEFPS Tolosaldea GLHBI	Santa Luzia 17	Tolosa
013025	IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI	Avda. Felipe Iv	Donostia-San Sebastián
013085	IES Antigua-Luberri BHI	Xalbador Bertsolaria 9	Donostia-San Sebastián
013159	G04 Berritzegunea	Okorro 7	Ordizia
013161	G06 Berritzegunea	Arrambide 17	Lasarte-Oria
013431	IES Elgoibar-Arreiturre BHI	Arregitorre 2	Elgoibar
013461	IES Beasain BHI	Ugartemendi 6	Beasain
014005	CEIP El Casal	El Casal, 6	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena
014010	IES Dolores Ibarruri	El Minero etorbidea, 28	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena
015627	IES Urritxe	Urritxe Sn	Amorebieta-Etxano
015628	IEFPS Zornotza	B.º Urritxe z/g	Amorebieta-Etxano
015248	B04 Berritzegunea	Zumalacarregui, 21	Barakaldo
014064	IES Antonio Trueba	Aldapa 5	Barakaldo
014065	IES Cruces	Siebe 84	Barakaldo
014066	IES Beurko	Arauti, 7	Barakaldo
015638	EOI Basauri	Bentako Pl. 1	Basauri
014188	IES Gabriel Aresti	Artalandio, 5	Bilbao
014187	IES Martin De Bertendona	Bertendona 5	Bilbao
015258	Isei-Ivei	Asturias 9-3	Bilbao
015630	IEFPS Tartanga	Tartanga 15	Erandio
014279	IES Andra Mari	Elexalde z/g	Galdakao
015088	IES Bengoetxe	Sixta Barrenetxea 13-A	Galdakao
015176	IES Ostalaritza Galdakao	Sixta Barrenetxea 24	Galdakao
014320	IES Gernika	Carlos Gangoiti 23	Gernika-Lumo
014301	IEFPS Fadura	Bizkerre z/g	Getxo
014950	IEFPS Iurreta	Olaburu, 19	Iurreta
014422	IEFPS San Jorge	Los Cuetos z/g	Santurtzi
015626	IES Axular	Axular z/g	Santurtzi
015625	IES Kantauri	Jose Maria Barandiaran z/g	Santurtzi
014402	CEIP San Gabriel	Estrada Salcedillo 16	Valle de Trápaga-Trapagaran
015257	B06 Berritzegunea	Arkotxa 14	Zaratamo